



“Jendearekin barre egin nahi dut, ez jendeaz”

Mikel Pagadizabal | Pagadi

Gaztetxeetan monologoak egiten hasi zena
Xabinaitor da orain.

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Dani Blanco

Hara trafiko segurtasunaren aldeko kanpainen ideologoa!

Bizitzak salbatzeko bada ni beti prest! Hori bai, nik amona zahar batek bezala gidatzen dut, mantso-mantso, semaforo guztiei begira...

Xabinaitor izateko jaio zinela, alegia.

Ardura ikaragarria da, baina oso harro nago. Pena, eguneroko bizitzan super-botere horiek ez izatea!

Umorea ez al da super-botere bat?

Umorea oso gauza serioa da. Norekin barre egitea da kontua, ez zertaz. Aurrena errespetua, inori minik ez emateko sentiberatasuna, eta hortik aurrera dena da umore-gai.

Sinestarazi nahi diguzuna baino langileagoa ote zaren...

Nahiko langilea naiz, oso maniatikoa, eta erabat perfekzionista. Lanak loa kentzen dit. 24 orduetan ari naiz lanean. Askotan, gauez komunera jaiki, ideia bat okurritu, eta ordenagailu aurrean jartzen naiz.

Gizajoa, negarrez hastear nago.

Erotuko nintzela ere pentsatu izan dut, baina badakizu, jaiotzen garen bezalakoak gara eta... kar, kar, kar!

Zuzenbidea eta diseinu grafikoa ikasteko ez da inor jaiotzen!

Pentsa, publizitate agentzia batetik erreskaltu ninduen Alkainek, eta egun, egiten dudanak asebetetzen nauenez ez nau segurtasun

ezak beldurtzen. Hori bai, norberak bere lana sortu ezean jai dago.

Noiz arraio konturatuko zarete gipuzkera ez dela euskara batua?

Konturatu ginelako egiten dugu egiten duguna! Darabilgun euskara ulerterraza da, eta sortzekotan, azkarregi hitz egiten dugulako sortu daitezke arazoak. Baina Iparraldean eta Bizkaian ere barre egiten duten artean...

“Hemen eta orain, Pagadi euskaltzain!”

Jendeak euskarazko irain eta erreferentzia falta aipatzen du etengabe, baina niretzat euskara berezko erreminta izan da, esakerak bilatu, sortu, eta jendearen pentsaera aztertzeko. Kaleko jendearengana heltzeko kaleko euskara erabili beharko da, ezta? Euskalkiek ez al zuten euskara batua aberasten?

Harrotu gabe, arrakastak lana baizik ez dakar eta.

Futbolariak bezala, aukera daukazun artean aprobetxatu eta zurea egin behar duzu. Inoiz pentsatzen dut aspertuko ote garen, aspertuko ote dugun, baina kaleko termometroa bero dagoen bitartean bota pinua!

Pagadi pinua botatzen, hori da hori anbizioa!

Jendearekin barre egin nahi dut, ez jendeaz. Hori eginez, jendea erlaxatu, entretenitu, eta inoiz edo behin kontzientziaren bat ukitzen badut, ni pozik. Horixe da nire bizitzako rola. Ez daukat bestelako anbiziorik. ■